

Herriari musika jarriz

Hiru irakasle eta 28 haur
ari dira Musika Eskolan ▶ 5



Gaur hasiko dira Amasan San Martin herri jaiak

HASIERA ▶ Mondejo afaria izango da gaur eta aste osoan zehar, ekitaldi ugari adin guztietakoentzat

JOKUA ▶ Oilasko jokoa egingo duten ala ez erabaki gabe dute Festa Batzordekoek ▶ 4

TOLOSA ▶

Hegoaldeko 6-3 galdu du Gironellaren etxean

Harrika aritu ziren
Gironako zaletuak ▶ 3

Saltsa polita eta jende asko izan zen igandean Babarrun Festan

IBARRA ▶ Herri kiroletan ibartarrek irabazi zuten; elkarteetako kideek prestatutako bazkarian 120 lagun elkartu ziren ▶ 6

ONINTZA ARANALDE



Hodeiertz eta Kea taldeak. J. SAIZAR

TOLOSA ▶

Abesbatza Lehiaketaren «parte-hartzea eta kalitatea» aipatu dute

TEEko antolatzaileak «pozarren» dira aurtengo edizioaren balantzea egitean ▶ 2

LEITZA ▶

Torreak Garagardo Festa antolatu du hirugarren urtez

Larunbatean izango da eta txartelak ostiralerako erosi behar dira ▶ 7

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Tolosako Abesbatza Lehiaketaren inguruan

Gutun honen bidez, Tolosa Bizirik herri ekimeneko hautesioi Tolosako Ekinbide Etxeari gure zorionik beroena luzatu nahi diogu, beste behin ere, egindako lanari esker, Tolosako Abesbatza Lehiaketak lortu duen arrakasta itzelagatik. Egun hauetan, gure herria

mundu osotik iritsitako abeslarien bilgune bilakatu da, eta hauek aldi berean gure herriaren gazi-gozaok ezagutu eta mundu osoan ezagutzera emateko aukera izan dute; beti ere elkarrekiko errespetu osoz. Horregatik, Tolosako Ekinbide Etxeak hautetsi hauekiko izan duen jarrera eskertu beharrean gaude. Gu aintzat hartuaz, ez dute herri honen laurdena ahaztu nahi izan eta Abesbatza Lehiaketa guztiona dela frogatu dute.

Aitzitik, beste behin ere,

Udaleko ordezkariak erakutsi duten jarrera salatu behar dugu. Kanpotarren aurrean normaltasuna irudikatu nahian edo, igande gauean Udalak eskaintzen duen herri-erakunde ofizialera gonbidatuak izan ginen. Urte osoan herriaren hitzari eta ordezkatzan ditugun 2.500 tolosarrei muzin egin ondoren, bat batean, alkatetza jaso dugun ahaztura eta mespretxuaren ondorioz, nahiago izan dugu, kanpoan, abesbatzetako ordezkariak gure ongietorria egin eta, aldi berean,

Jokin, itxurakeriak galtzen zaitu. Ezkutatzak ez ditu ara-

zoak konpontzen, handitu berri ez ditu egiten. Arazoak konpontzeko borondatea eta lana behar dira, eta urte osoan ez duzu ez bata ez bestea erakutsi.

Iaz, gure kanporatzeari irribidea emateko ahaleginei eskua zabaldu nahian, izan ginen aipatu ekitaldian. Aurten, urte osoan alkatetza horretatik jaso dugun ahaztura eta mespretxuaren ondorioz, nahiago izan dugu, kanpoan, abesbatzetako ordezkariak gure ongietorria egin eta, aldi berean,

gure herriaren egoeraren berri eman.

Oso pozgarria da aurreko legegintzaldian nazioarteko abesbatzetako ordezkariaren artean egindako lagunek, baita Espainiakoak ere, erakusten dituzten errespetua eta gure egoerarekiko agertzen duten harritura. Alkate jauna, zuk nola argitzen diezu kanpotarrei gure herriak bizi duen egoera?

ANTTON IZAGIRRE, BEGOÑA ALDALUR, HEKTOR ESPIN, IBAN ORTIZ

ETA AITOR IZTUETA ▶ TOLOSA BIZIRIK HERRI EKIMENOKO HAUTESIAK

36. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

LEIRE MONTES

36. Abesbatza Lehiaketako balantzea egin berri dute Tolosako Ekinbide Etxeko-ek (TEE), eta «pozarren» agertu dira aurtengo edizioak utzi dituenarekin. Lehiaketa «kalitatekoa, anitza eta parte-hartzailea» izan dela diote.

ABESBATZEN MAILA

Abesbatza guztien maila ona goraiatu dute antolatzaileek. «Emanaldi batzuk benetan bikainak izan dira. Besteak beste, Santa Klara elizan izandako saioa sekulakoa izan zen, eta parte hartu zuten bost taldeak ezinhobeto aritu ziren», dio Luis Miguel Espinosa Lehiaketako zuzendari artistikoak. Ahots taldeen alorrean ere, bai musika profanoan bai musikari sakran, «maila handia» izan dela azpimarratu du. Ahots berdinetan, ukrainiarren eta japoniarren emanaldiak nabarmendu dituzte TEEkoek.

HAUR ABESBATZAK

Abesbatzen maila ona aipatzeaz gain, Haur Lehiaketa «bikaina» izan dela adierazi du Espinosak. Txinako abesbatzak piztu du jakinmin handien, baina beste taldeen «dan ona» ezin dela ahaztu dio: «Hedabideek

Txinako Lily Children's Choir-i jarraipen zabalagoa eman diote. Baina beste abesbatza guztiak ere maila ona eskaini dute. Asko eta asko izan gara haiek entzutean hunkitu garenak».

LEHIAKETATIK AT

Zuzendari artistikoaren esanetan, lehiaketaren atariko kontzertua —Bello Porturi omenaldia—, eta topaketa itxi zuen emanaldia —Enrique Azurza-ren Hodeiertz abesbatzak eskainitako kontzertu polikoral— aurtengo edizioa «borobildu» egin dute. Bestalde, lehiaketan parte hartu duten taldeen 69 kontzertu eskaini dituzte Tolosatik kanpo, Gipuzkoan, Bizkaian, Nafarroan, Iparralden eta Espainian (Asturias eta Aragoi). 25.000 lagunetik gora jarraitu dituzte saio horiek.

ANIZTASUNA

Asiako taldeen nagusitasuna argi geratu da 36. Abesbatza



Japoniako Brilliant Harmony abesbatza, aurtengo irabazlea. I. ETXEBESTE

Lehiaketan: helduetan Japoniako Brilliant Harmony-k irabazi du, eta haurretan Chinako Lily Children's Choir. «Talde hauen izaera, pentsamolde eta presuntakuntza zorrotza ikusi ahal izan dugu, beste behin», esan du zuzendari artistikoak. Asiako taldeak nagusi izan arren, lehiaketa «anitza eta estilo as-

kotakoa» izan dela dio. Irabazlearen zerrendan, esaterako, Amerikako, Asiako eta Europako ordezkariak egon dira.

ENTZULEGOA

«Aurten ere, parte-hartze handia izan du Abesbatza Lehiaketan». Haur lehiaketarako, adibi-

dez, sarrerak agortu egin ziren aurretik. Saio guztiak ia bete egin dira. TEE-koen hitzetan, 8.000 entzule inguruk jarraitu dute aurtengo topaketa.

BOLUNTARIOAK

200 lagunetik gora aritu dira musutruk lanean. «Guretzat, profesionalak dira, dena ematen baitute lanean. Denetik egiten dute: abesbatzak lagundu, denda aritu, bazkariak zerbitzatu... Eta urtero izaten ditugu bidelagun», dio Idoia Otegi giza harreman buruak.

ESKERRAK

«Jende askori eman behar dizkiogu eskerrak beti hor izateagatik», azaldu dute TEE-ko ordezkariak. Entzulegoaren eta boluntarioen jarrera baloratzeaz gain, Tolosako elkarrean, Santa Klarako mojen, aita frantziskotarren eta Hirukide Jesuitinak ikastetxearen «inplikazioa eta babesa» eskertu dute.

hitza **txokoa** lagunen

▶ Astebukaera honetan **Leidorren** emango den filmerako 2 sarreraren zozketa

▶ Aspek antolatuta **Beotibarren** jokatuko diren pilota partiduetarako sarreraren zozketa

Maite

▶ Estetikako Zentru Integralaren eskutik **BALLANCER** presoterapia berrirako 3 saioen irabazlea:

Elixabete Insausti (Alegia)

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakum. Ohorezko Maila.

Gironella-Hegoalde 6-3

1. Maila A.

Ibarra-UPV 2-5

1. Maila B.

Laskorain-Muskiz 9-6

ESKU PILOTA

ELKARTEEN ARTEKOAK

Kadeteen 1. Maila.

Tartaloeixe-Aurrera Saiaz 6-22
(Xabier Telletxea)

Gazteen 1. Maila.

Tartaloeixe-Aurrera Saiaz 2-22
(Koldo Galarraga)

Gazteen 2. Maila.

Aurrera Saiaz-Aloña Mendi 13-22
(Beñat Iriarte-Axier Telleria)

Nagusien 1. Maila.

Zazpiburri 1-Aurrera-Saiaz 22-15
(Unai Aspe-Julen Mujika)

FUTBOLA

Gorengo Maila.

Urola-Tolosa 1-3
Saikapena ▶

- 1. UPV-EHU 19 puntu
- 2. Ordizia 19 puntu
- 3. Tolosa 18 puntu

- 4. Real Union B 17 puntu
- 5. Urola 15 puntu
- 6. Pasajes 15 puntu
- 7. Mutriku 15 puntu
- 8. Arexabaleta 15 puntu
- 9. Zarautz 14 puntu
- 10. Mondragon 14 puntu
- 11. Trintxerpe 14 puntu
- 12. Hondarribia 14 puntu
- 13. Orioko 14 puntu
- 14. Anaïtasuna 13 puntu
- 15. Touring 13 puntu
- 16. Beti Gazte 12 puntu
- 17. Zestoa 11 puntu
- 18. Aloña Mendi 8 puntu
- 19. Oiarzun 6 puntu
- 20. Bergara 5 puntu

Nesken Liga.

Tolosa-Groseto 6-1

Lurraldeko 1. Maila.

Aralar Mendi-Aurrera 2-1
Tolosa B-Behobia 1-1
Saikapena ▶

- 1. Martutene 17 puntu
- 2. Allerru 17 puntu
- 3. Irun 1902 13 puntu
- 4. Astigarako 13 puntu
- 5. Euskalduna 13 puntu
- 6. Lengokoak 13 puntu
- 7. Roteta 12 puntu
- 8. Ostarar 11 puntu
- 9. Beti Ona 11 puntu
- 10. Behobia 10 puntu
- 11. Vasconia 9 puntu
- 12. Mariño 8 puntu
- 13. Amara Berri 7 puntu
- 14. Gure Txokoa 7 puntu

15. Ordizia 7 puntu

16. Tolosa B 1 puntu

Lurraldeko 2. Maila.

- Danena-Lazkao 1-6
- Inburre-Sampedrotarra 0-3
- Amaroz (atsedena)
- Saikapena ▶
- 1. Sanpedrotarra 19 puntu
- 2. Danena 12 puntu
- 3. Lazkao 10 puntu
- 4. Usurbil 10 puntu
- 5. Amaro 9 puntu
- 6. Inburre 6 puntu
- 7. Lasarte-Oria 3 puntu

Jubenilen Euskal Liga.

Tolosa-San Ignacio 0-0
Saikapena ▶

- 1. San Ignacio 23 puntu
- 2. Barakaldo 21 puntu
- 3. Tolosa 17 puntu
- 4. C. Durango 16 puntu
- 5. Eibar 15 puntu
- 6. Zugatzarte 15 puntu
- 7. Elgoibar 14 puntu
- 8. San Marcial 12 puntu
- 9. Amorebieta 12 puntu
- 10. Zalla 12 puntu
- 11. Aloña Mendi 11 puntu
- 12. Lagun Onak 10 puntu
- 13. Sp. Herrera 8 puntu
- 14. Olarizu 8 puntu
- 15. Casco Viejo 6 puntu
- 16. Berneo 3 puntu

Jubenilen 1. Maila.

Texas Lasarteerra-Billabona 3-3
Vasconia-Inburre 7-1

Kadeteen Euskal Liga.

- Santubux-Tolosa 3-0
- Saikapena ▶
- 1. Athletic 27 puntu
- 2. Real Sociedad 19 puntu
- 3. Danok Bat 19 puntu
- 4. Antiguoko 17 puntu
- 5. Real Union 17 puntu
- 6. San Ignacio 16 puntu
- 7. Arenas 15 puntu
- 8. Santubux 14 puntu
- 9. Alaves 12 puntu
- 10. Eibar 10 puntu
- 11. Retuerto 10 puntu
- 12. Santurtzi 9 puntu
- 13. Indartsu 9 puntu
- 14. San Vitor 7 puntu
- 15. Sp. Herrera 1 puntu
- 16. Tolosa 0 puntu

FUTBOL 7

1. Maila.

Kroms-Ibarako GA 0-5
Callejo-Lanbroa Dickens 6-3
Saikapena ▶

- 1. Robers 18 puntu
- 2. Knauf-Dec. Nuñez 17 puntu
- 3. Zibibito Dance Club 16 puntu
- 4. Callejo Lanperna 12 puntu
- 5. Bataplan 12 puntu
- 6. Perku taberna 11 puntu
- 7. Zardoya Otis 11 puntu
- 8. La Kabutzia 9 puntu
- 9. Easo Motor 8 puntu
- 10. Lanbroa Dickens 8 puntu
- 11. B. Ignacio Hondarribia 7 puntu
- 12. Kroms 7 puntu
- 13. Ibarako Gazte Asanblada 6 puntu

14. Irish Guinness 5 puntu

15. St. Etienne Cafe Bar 5 puntu

16. Cesar Rueda Seguros 3 puntu

2. Maila A.

Nin Climatizacion-Bar Shanti Kirolak 3-4
Saikapena ▶

- 1. Pub Egarri 19 puntu
- 2. Bar Shanti Kirolak 16 puntu
- 3. Ekin Fisioterapia zentroa 14 puntu
- 4. Disco Bar Egur 13 puntu
- 5. Taberna Dani 12 puntu
- 6. Ron Cartavio 11 puntu
- 7. Sagardotegi Akelenea 11 puntu
- 8. Ikena 10 puntu
- 9. R. Izkina-Pasaia 10 puntu
- 10. Encofrados Iguazuri 10 puntu
- 11. Eibartarra Dance Club 9 puntu
- 12. In the line 7 puntu
- 13. Papeleria Tamayo 5 puntu
- 14. Cabo Rojo Pyxies 4 puntu
- 15. Nin Climatizacion 3 puntu
- 16. Fermax Instalaciones GC 2 puntu

ZESTA-PUNTA

SANTA LUZIA TXAPELKETA

Alebinak.

Mugerza-Zaldua/Odrizola-Uranga 10-15, 8-15

Infantilak.

Erauskin-Gurrubxaga/Ruiz-Bildarratz 15-13, 15-12
Etxabe L.A.-Izagirre/Sanchez-Etxabe R. 15-4, 15-6
Gabarain-Narbarte/Manterola-Alberro 8-15, 2-15

ARETO FUTBOLA ▶

Irabazten jakin ez

Gironellaren aurka 6 eta 3 galdu du Hegoalde; Kataluniako zaletuak harrika hasi zitzaizkien tolosarrei neurketa ostein

GIRONELLA ▶ 6

HEGOALDE ▶ 3

Gironella. Laura Fernandez, Laura Garcia, Maria, Cristina, Silvia, Ana, Susana, Clara, Montserrat, Gema eta Silvia Pardo. Entrenatzaile: Sofia Mado.

Hegoalde. Sonia Tome, Itziar Aldezabal, Isa Barrio, Maider Lopez, Amaia Azpilikueta, Gema Zelaia, Nerea Salazar, Arrate Martinez eta Edurne Agirretxe. Entrenatzaileak: Amilibia eta Argote.

Golak. 1-0: Silviak (8m.); 1-1: Maider Lopezek (8m.); 1-2: Maider Lopezek (23m.); 2-2: Claudiak (24m.); 3-2: Anak (31m.); 4-2: Anak (32m.); 5-2: Gema (36m.); 6-2: Silvia Pardok (38m.); 6-3: Maider Lopezek (39m.)

Arbitroak. Marcelino Blazquez eta Jon Fernandez.

IRATXE ETXEBESTE

Hegoalde, Tolosako areto futbol taldea Katalunian izan zen larunbatean, Gironellaren aurka jokatzekoa zelako Gironella-ko udal kiroldegian. Azkenean, aurreikusitako lau bajak bi izan ziren, izan ere, Maider Lopezek eta Nerea Salazarrek partida jokatu ahal izan zuten. Hala ere, ez ziren behar bezain ongi joan gauzak, eta asko narbitu zen Miriam Arana eta Miriam Pradosen hutsunea. Gogoratzekoa da titular jokatzaren duten jokalaririk direla biak ere; ondorioz, bi baja garrantzitsurekin aritu zen Hegoalde Gironellaren aurrean.

Partidaren lehenengo zatian Hegoalde izan zen nagusi; partida hasi bezain laster golerako bi aukera garbi izan zituen. 8. minutuan, ordea, Gironellako Silviak sartu zuen gola. Baina seguru zegoen dena, izan ere, minutu berean Maiderrek 1 eta

1eko berdinketa ekarri baitzuen markagailura. Lehenengo zatia amaitzerako, 1-1 eska-sarekin joan baziren ere, esateko da Hegoalde gol aukera anitz izan zuela: sei gol aukera garbi izan zituzten lehenengo zatian. Gironellak, berriz, bi gol aukera garbi izan zituen. Hala ere, ez Hegoalderen baloiek ezta Gironellarenek ere ez zuten sarea laztantzeko paradarik izan; 1-1 eko emaitzarekin joan ziren aldagelatar.

Bigarren zatia oso itsusi zertorren tolosarrentzat. 23. minutuan Maiderren golari esker markagailuan aurretik jarri baziren ere, ez zen luzerako izan. Horrela, Hegoalde bere ohiko jokoa iri eutsi nahi izan zion; hots, joko biziari, arrisku handiegirik gabekoari eta mugimendu askodunari. Ordea, Gironellak Hegoalderi min egin zion jokoa egin eta harrapatu egin zuen. Joko motel eta lasaiekin abiatzen zen aurka-

riaren atera, baina bat-batean jokoaren erritmoa aldatu eta jokaldi azkarrekin ustekabeen harrapatzen zituzten Hegoaldekoak, baloia dantzatuz, tolosarren sarea amaitzeko.

Gauzak horrela, kataluniarren sareetan erori eta ezin izan zuten tolosarrek joko bizi- ra bueltatu. Gironellako jokalaririk, ostera, kiroldegiko erre-gin bilakatu ziren minutu gutxi- ren buruan. Zaleen oihuen artean, eta lur irristakorra oztopo ez zelarik, 4 gol sartu zituzten. 24. minutuan sartu zuen Claudiak garaipenaren bideko lehen-a. Ondoren, Anak bi gol sartu zituen ziztu biziari. Jokalari tolosarrek, kiroldegian bi- zitato presio eta tentsioa izan zuten pozoi, eta ezin izan zioten beren jokoa iri eutsi.

Herri osoa gainean zuen Gironellak joko zirikatzaile egin zuen bost falta izanagatik. Hegoalde, berriz, 2 falta izatetik 6 falta izatera igaro zen minutu bakar batean. 36. minutuan, bosgarren gola eman zion Gemmak talde kataluniarrari eta 38. minutua iritsi zenerako 6-2 marraztu zuen Silvia Pardok Gironellako markagailua. 39. minutuan, gauzak aldatuko ez zituen Maiderren gola etorri zen. Partida amaitzeko azken

minutua falta zela, Soniari txar- tel urdina atera zion Blazquez-ek, jokaldi dudakor batean. Beraz, datozen bi partidetan ez du jokaterik izango. Azkenean, 6-3 etxeko taldearen alde.

Maitte Argote, Hegoaldeko bigarren entrenatzailearen esanetan, «lehen zatia gurea izan zen, baina bigarren zatian asko aldatu zen jokoaren moldea, izan ere, Gironellaren jokoaz kutsatu eta joko motela egiten hasi baikinen». Horrez gain, argi azaldu du zein ikasgai ekarri duen Hegoaldeko Kataluniatik: «Zaletuen garrasiak eta irai- nak, edota presioa eta tentsioa bezalako elementuen aurrean, ezin gara behera etorri. Kanpo faktoreekin daukagun borro- kan garaile atera behar dugu; hotzak izaten ikasi beharra daukagu, zaleek esaten dute- naren aurrean minik ez hartze- ko». Gironellako zaletuen alde- tik askotariko erasoak jaso zi- tuzten Hegoaldekoak: hala no- la, irainak, oiuhak, txistuak... Gezurra dirudien arren, Hego- aldeko jokalaririk etxera era- man behar zituen autobusari harrika hasi zitzaizkien herri- tarrak kiroldegitik irtetea. «Tamalgarria da XXI. mendean horrelako gauzak bizi behar izatea», diote Hegoaldekoak.

AMASA ▶ SAN MARTIN JAIK

San Martin jaiei gaur emango zaie hasiera mondejo afariarekin

Aste guztian zehar ekitaldi ugari antolatu dituzte festa batzordekoek haur, gazte zein helduei zuzenduta

IMANOL GARCIA

Uxo Toki elkartean mondejoa afalduz hasiko dira aurtengo San Martin jaiak. Ekitaldi ugari prestatu dituzte Festa Batzordekoak, haur, gazte eta helduentzat. Oilasko jokoari dago-kionez, urtero bezala oilasko bilketa egingo da asteazkenean baserrietatik, baina oraindik ez da erabaki oilasko joko a egingo den ala ez.

Herri kirolek protagonismo handia izango dute. Ostegunean, San Martin egunean, proba berezia ikusi ahal izango da: idien ordez, harriari tiraka astoa eta sei laguneko taldea arituko dira nor baino nor. Hogei urte inguruko gazte koadrila gogor prestatzen ari da animalia tematiak baino plaza gehiago mugitzeko harria. Bestalde, aurreko urteko arrakasta ikusirik, berriro egingo da herriko gazteen arteko sega apustua. Larunbata eguerdian izango da hitzordua. Igandean, berri, idiak eta behorrak neurtuko dituzte beren indarrak eta ondoren herriko gazteak arituko dira zenbait herri kirol proba egiten. Jarraian aizkolaria eta harrijasotzaileak arituko dira lanean.

Aurtengo egitarauak ere badu sorpresarik. Larunbateko herri bazkariaren ondoren, sekretupean mantendu duten ekitaldi berezia prestatu dute herriko gazteek. Haurrek bere eguna izango dute ostiralean. Pirritx eta Porrotxen emanaldia arratsaldean eta ondoren guztientzako txokolate jana. Dantzialdiek ere bere tartea izango

EGITARAUA ▶

GAUR

20:30. Mondejo afaria Uxo Toki elkartean.

BIHAR (HILAK 10)

Gazteen eguna.

06:00. Ongi-Etorri tabernan gazteen gosaria trikitilari eta dultzaineroek alaiturik.
16:30. Dantza-soka eta aureskua. Ondoren erromeria.
21:00. Afaria Arantzabi jatetxean.

ETZI (HILAK 11)

San Martin eguna.

10:30. Meza nagusia.
11:30. Herri kirolak: astoa eta gizonak elkarren aurka. Jarraian bertsolariak, Larrañaga eta Irazu, eta trikitilariak, Larrañaga eta Zabale.
18:00. Amasako X. Pala Txapelketaren finala. Jarraian eskuzko pilota partida. Gero bertsolariak eta trikitilariak.

OSTIRALA (HILAK 12)

Umeen eguna.

17:15. Pirritx eta Porrotx pailazoak. Ondoren txokolate jana.
20:00. Amasako XIII. Bakailoa Lehiaketa. Ondoren bakailoa

dute. Trikitio taldea ostiralean eta Imuntzo eta Beloki larunbatean. Jaiak igande honetan amaitzen badira ere, azaroaren

eta sagardoa doan.

23:00. Dantzaldia Trikitio taldearekin.

LARUNBATA (HILAK 13)

10:30. Ume krosa.
12:30. Sega apustua herriko gazteen eskutik: Andoni Lizarra. Garikoitz Melu, Jokin Melu II.a, Mikel Xandra eta Arkaitz Xandra II.a.
14:00. Herri bazkaria: txekor jana. Ondoren, sorpresa Amasako gazteen eskutik.
22:30. Bertsolari jaialdia: Amaia Agirre, Sustrai Colina, Anjel Mari Peñagarikano eta Iker Zubeldia. Gai jartzaile: Jon Zaldia. Ondoren Imuntzo eta Beloki taldearen eskutik dantzaldia goizaldera arte.

IGANDEA (HILAK 14)

11:30. Herri kirolak: idia eta behorra elkarren aurka.
17:00. Herrikirolak herriko gazteen eskutik. Jarraian aizkolaria, Nazabal eta Arrospide, eta harrijasotzaileak, Izeta eta Landarbide.
24:00. XV. Inxorrenaren aldaketa.

IGANDEA (HILAK 21)

11:00. Amasako XII. Mendiatioia.

21an, igandea, XII. Mendiatioia egingo da. Izen ematea egun bertan egin ahalgo da Uxo Toki elkartean.

AIZTONDO ▶ ARGAZKI RALLYA



Alkizan eman zuten izena parte-hartzaileek. HITZA

Bailarako argazki rally arrakastatsua herenegun

Guztira 36 parte-hartzaile izan ziren; sariak azaroaren 27an banatuko dira Larraulen

I. GARCIA

Guztira 36 lagunek, eskualdekoak zein kanpokoak, hartu zuten parte herenegun bailarako argazki rally arrakastatsuan. Eguraldiak lagunduta, Alkiza, Larraul, Aduna eta Zizurkiltik barrena ibili ziren argazkizaleak irudi onenaren bila. Hurrengo hitzordua Zizurkilen izango dute, datorren

larunbatean, Aiztondo Mankomunitatearen bulegoan, 17:00etatik 18:00etara. Bertan aukeratu beharko dute atera zituztenetik zein argazki aurkezten dituzten lehiaketara.

Epaimahiaren erabakia jakin ondoren, sari banaketa burutuko da Larraulen, azaroaren 27an, larunbata, herri honetako Kultur Astearen barruan.

ADUNA ▶ UDALA

Ohiko batzarra egingo da gaur udaletxean

Izatezko bikoteen erregistroa eratzea izango da bilkuran jorratuko diren gaietako bat

I. GARCIA

Udaletzeko batzar aretoan ohiko batzarra izango da gaur, 20:30etik aurrera. Jorratuko diren gaiak, besteak beste, honakoak izango dira: izatezko

bikoteen erregistroa eratzea; 1/2004. zenbakia daraman kreditu aldaketa onartzea; egur ustiapenerako baldintzen pleguaren onarpenera eta zenbait diru laguntza, faktura eta mozioen azterketa.

lela-Artibai eta Mutrikuko **hitza**
1. URTEBETETZEA
azaroaren 12an,
22:30ean
ONDARROAN

LA KINKY BEAT
KONTZERTUAN

sarrerak
aurretiaz: 6 euro
tekilan: 8 euro
Zenbat Gara lagunak
edo Hitza karnelagaz: 4 euro

Kafe
KIN
KIA

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

AMEZKETA ▶ MUSIKA



Hogeita zortzi ikasle ari dira herriko musika eskolan ikasten; Zumadi eskolako geletan izaten dituzte eskolak. O.ESKIXABEL

Herriari musika jarritz

Orain dela hamahiru urte inguru sortu zen Amezketa Musika Eskola; hiru irakaslek ematen dituzte eskolak eta hogeita zortzi ikasle ari dira ikasten bertan

OLAIA ESKIXABEL

Zumadi eskola, musikaren txokoa bihurtzen da aste-egunetako arratsaldeetan; izan ere, bertan izaten dituzte egunero musika eskolak. Musika tresna desberdinen doinuak entzuten dira bertan: trikitixarena, panderoarena eta kitarrarena. Musika taillerak ere eskolako beheko geletan ematen dira; eta pianoko eskolak, Zumadi eskolan eta Larrunarri pilotalekuko gelan. Akordeioa ikasteko aukera ere eskaintzen da, inork izena eman ez badu ere.

Eskaintza inoiz baino zabala goa dela zehaztu dute eskolaren ardura duten lau amek: Aurten gitarra eta musika taillerren eskaintza egin da eta horrek ikasleen kopuruaren iguera ekarri du. Guztira, hogeita zortzi ikaslek eman dute izena aurtengo ikasturtean. Horretaz gain, orain arte haurrak eta gazteak joaten baziren ere, egun, helduak ere animatu direla zehaztu dute Musika Eskolaren martxa eramaten duten amek.

Urteak lanean

Orain dela hamahiru urte sortu zen Amezketa Musika Esko-

la: «Zumadi eskolako irakasle den Lurdes Larretari eta ikasleek amei esker mantendu da urte guzti hauetan», azaldu dute. Guztiei, eta bereziki, Larretari eskerrak luzatu nahi izan dizkiete «Musika Eskolaren alde egin duten lanarengatik».

Urtean bi emanaldi eskaintzen hasi ziren ikasleak; azken urteetan, hala ere, Gabonetako kontzertua bakarrik eskaini dute. Aurten, berriro ere, «bi emanaldi antolatu nahi dituzte: Udarakoa eta Gabonetakoa».

Hiru irakasle daude Musika Eskolan; horietako bi herrikoak dira, gainera. Kotsuelo Al-tunak pianoa erakusten du eta

Mikel Goñik, berriz, gitarra eta musika taillerrak. Aipatzekoa da, gainera, azken hori ikasle gisa hasi zela eta egun irakasle lanetan ari dela. Iker Goenaga zizurkildarrak trikitixa eta panderoa erakusten ditu eta akordeoio eskolak Juan Kruz Arregi andoaindarrak emango lituzke. Hauentzako guztientzako ere eskertza hitzak izan dituzte: «Eskola sortu zenetik, eta ikasle kopurua baxua izan arren, lanean jarritzeko prest eta gogoz agertu dira beti irakasleak».

Dirua, beharrezkoa

Irakasleen ordainketa, musika tresnen mantenua, bestelako

materialaren erosketa... egiteko «diru dezente» behar dela zehaztu dute amek: «Zerbitzu garestia da eta hileroko kuota-rekin ezin da dena ordaindu». Horregatik, Udalarari diru eska- era luzatu diete, urtero bezala, eta erantzunaren zain daude: «Diru horrekin kontatzen dugu aurrera jarraitzeko, behar-beharrezkoa dugulako», adierazi dute amek.

Amezketa Musika Eskola, ikasturtearekin batera hasi eta amaitzen da. Eta musika tresnaren bat ikasteko interesa duten herritarrek izena eman dezakete ikasturtean zehar. Horretarako, 690 349009 telefono zenbakira deitu dezakete (Agurtzane).

AMEZKETA ▶

‘Gernu-ihesa’-ri buruzko hitzaldia, Kutzak antolatuta

Gernu-aparatuaren (*aparatu urinario*) inguruan sortzen diren aldaketa fisiologikoen berri emango du Jose Luis Martinek gela balioanitzean. Gipuzkoako Kutxa Ikasgela antolatutako hitzaldia da. Bertan, gizonezkoen zein emakumeen gernu-ihesa (*incontinencia urinaria*), eguneroko bizitzan eragiten dituen arazoak, arriskuak... azalduko ditu Martinek. Hitzaldia, 19:00etan izango da.

AMEZKETA ▶

San Martinetako bazkarian izen-ematea

San Martin eguna izango da etzi; egun horretarako bazkaria antolatu du Udalak Behartzana jatetxean; bertara joan nahi dutenek txartelak erosi beharko dituzte jatetxean bertan. Txartelak gaur erosiz gero 22 euro balioko dute; ondorengo egunetan erosten dutenek, berriz, 25 euro ordainduko dituzte. Bazkarian izena emateko honako telefono zenbakietara deitu daiteke: 943 650695 edo 605 727730.

ALEGIA ▶

‘Camino a la perdición’ bihar Gaztetxean

Sam Mendes-ek, *American Beauty* filma ezagunaren ondoren zuzendutako bigarren filma, *Camino a la perdición* delakoa eskainiko dute Gaztetxean bihar. Orain dela bi urte estreinatua zen drama generoan kokatutako filma estatubatuar hori; bertan, Tom Hanks, Paul Newman eta Jude Law, besteak beste. Filma, 21:30ean hasiko da.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburutan lan egiteko. 943 691933.

SALGAI

Apartamentua. Anoetako plazan apartamentua salgai. Guztiz berritua; berokuntza sistema eta gasarekin. 615 767764.

Soinu ekipoa. Soinu ekipoa salgai. Argibidetarako deitu 943 674806 / 943 117738.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

IBARRA ▶ GIZARTEA

Saltsa polita Babarrun Festan

120 elkartu ziren plazan; Ibarako taldeak irabazi zuen herri kiroletan

ERREDAKZIOA

Saltsa polita izan zen igandean Ibarako plazan —kazeletan babarrunak prestatzerakoan, herri kirolen txandan, bazkarian zehar eta bazkalondoan— Hauspoa kultur koordinakundeak urtero bezala antolatutako Babarrun Festan. Jendetza bildu eta herri giro paregabea lortu zuten.

Bost herri kirol aukeratu zituzten jolas modura: azkenaldian Ibarra hain modan jarri den sokatira, koskola apustua, zaku karrera, kontrabandistarena eta txingak. Parte-hartzaileak bi taldetan banatu ziren: Ibarra eta beste guztiak (Izaskun, Belauntza...). Proba lehiatuaren ondoren, azkenean ibarrek irabazi zuten kirol apustua. Fardo exhibizioa ere izan zen eta 5,25 metrora botatzea lortu zuen belauntzar batek, «marka oso ona» antolatzaileen esanetan.

Eta kirola egin edo ikusi ondoren, mahaiari eseritzeko txanda iritsi zen. Horretarako Xepla eta Deportiva elkarteetako kideak goizean goizetik aritu ziren babarrunak prestatzen. 120 bat lagun bildu ziren mahaira. Sakramentu guztiak izan zituzten babarrunek: odolkiak, aza eta Ibarako Piperrak —nola ez—. «Ederrak» zeuden, esker oneko bazkaltiarren esanetan. Herriko trikitilariak

arduratu ziren bazkaria musikaz alaitzeaz eta giro polita sortu zuten San Bartolome plazan jarritako karparen azpian.

Txerriaren zozketa ere egin zen, urtero bezala, baina txartelak bukatu egin zirenez, beste txerri erdi bat ere zozketatu behar izan zuten. Txerria Arantxa Rajado, Lekuona eta horien koadrilari tokatu zitzaion eta txerri erdia Eugenio Lopetegiri. On egin!



Prestatzen. Xepla eta Deportiva elkarteetako bazkide batzuk aritu ziren goizean goizetik bazkaria prestatzen: babarrunak, odolkiak, azak eta —nola ez— Ibarak piperrak. O.ARNALDE



Bazkaria. 120 bazkaltiar elkartu ziren karparen azpian. O.ARNALDE



Sokatira. Azkenaldian modan jarri da kirol hau Ibarra. O.ARNALDE



Kontrabandistarena. Herri kirol desberdinak egin zituzten bi taldetan banatuta parte hartu zuten neska-mutilek; azkenean Ibarako taldeak irabazi zion gainontzekoek osatutakoari. O.ARNALDE

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. 68 33 61

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. M.I.Tolosa Kale Nagusia 7 (Tolosa). 943 67 06 48.

Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheha
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 119.000 Eurotik aurrera.

Tolosa. Korreo, 2 logela, erabat berriua, ezin hobeto, igogailua jartzeko aukera.

Tolosa. Santa Klara. 4 logela. Berokuntza. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

Tolosa. Santa Klara. 2 eta 3 logelako pisuak salgai, sukalde, egongela eta bainugelarekin. Berokuntza. 167.090€ tik aurrera.

Tolosa. Larramendi. Orain dela gutxi erakuntza. 2 logela, sukaldia, egongela eta trastelekua. Berokuntza. Ezin hobeto.

Tolosa. Amaro zuzen oso egoera

onean dagoen etxebizitza salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Larramendi, Pisu ederra garajearekin salgai.

Tolosa. Gernikako lorategian, 108 m2. Pisu ederra salgai.

Trastelekuarekin.

Tolosa. Foruen Etorbidean guztiz berriutako etxebizitza salgai.

Ikustekoa !!!

Tolosa. Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrarekin. Aukera paregabea !!!!

Tolosa. Larramendi ibiltokia. 4 logelako etxe abikia.

Ibarra. Julian Gaiarren. Berritutako etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldia, egongela eta komuna.

Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran. Villabona, Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

Villabona. Etxeondo. Pisu ganbara

eta garaje ibiarekin.

Billabona. Kale berrian 180 m2ko

etxebizitza berokuntzarekin.

Villabona. Errota. Pisu ganbara eta garaje ibiarekin.

Villabona. Kale Berrian. Eraikuntza berriko etxe salgai. Garaje bikoitza ibia aukeran.

Villabona. Larrea eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua

Berrobi. 2 logeletako pisu merkea.

Toki lasaia. 141.839 Euro.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trastelekua eta garaxearekin.

Alegia. San Juan kalean 161 m2ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Ikaztegieta. Eraikuntza berriko etxe atxikia salgai. 270.455 euro.

Zizurkil. Etxe unifamiliarra salgai

1.700 m2 lursailarekin.

Ordizia. Berritutako etxebizitza merkea salgai.

Peñíscola. Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Garagardo festa Torrea elkartearen eskutik 3. urtez

Txartelak salgai daude ostirala —hilak 12a— arte;
jatorrizko jaki eta edariak dastatzeko aukera eskura



Garagardo festa, 3. urtez antolatuko du Torrea elkarteak. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Heldu den asteburu honetan, Garagardo Festa eginen dute Torrean. Larunbatean, hilak 13, izanen da afaria eta bertara joan nahi duenak txartelak salgai ditu, bere horretan, ostirala bitartean eta 20 euroren truke.

Duela bi urte antolatu zuten lehendabiziko aldiz horrelako egun bat, «froga modura edo hasi ginen, herrian berria zen eta; eta horrela, harrera ona izan zuela ikusirik, orduz geroz, aurten hirugarren aldiz antolatuko dugu honelako festa bat», argitu zioten HITZARI.

Egun honetarako, garagardoa laguntzeko ere, alderantziz hobe, jaki aproposak prestatu-

ko dituzte. Aurtengoan gainera, lehendabiziko aldiz aukeran jarriko dute, txerri txangarra: txerriaren ukondoa izanen litzatekeena, jaso duten jatorrizko errezeta baten arabera, ego-si eta gero labean prestatuta mahairatuko dute. Hori gustuko ez duenarentzat, gure janariaren artean ohikoago den saiheskiak ere izanen dira, hau parrilan errea.

Baina, noski, horrelako festetan tipiko direnak, saltxitxak dira. Kasu honetan, bi motakoak prestatuko dituzte, hauek ere parrilan: gorriak eta zuriak «Alemaniatik ekarritakoak dira. Zuriak bereziak dira, espezie eta pikantedunak», adierazi zuten antolatzaileek, «he-

men ez dugu horrelakoak jateko ohiturarik baina», erantsiz. Hau guztia entsaladaz ez ezik, patata-pureaz lagunduko dute. Bukatzeko ohiko otordu burukoak mahairatuko dituzte.

Baina, otordu horretan edatekoa izanen da nagusi: garagardoa. Horrela, barrika bat jarriko dute, Irlandako garagardoarekin, otordukoan nahi adina hartzeko, «baina beti izaten da gustuko ez duenik ere, eta bestelako edariak ere zerbitzatuko ditugu», zioten.

Eta mahatik kanpo, berriz, goizaldera arte luzatuko den festan, «betikoak diren garagardoak zerbitzatuko ditugu, noski; baina egun honetarako bereziki ekarritako beste sei motatakoak ere egonen dira aukeran», adierazi zuten. Alemania, Ingalaterra, Txekia eta Belgikatik ekarriko dute garagardoa; batzuek beltzak eta besteak gorriak, «tostatuak» izanen dira; zaporean ere garraztasun desberdinetakoak, lehunxeagoetatik hasi eta garrazzetarainokoak. Berezitasun modura aitatu zutenek, horietatik bat, garagarrarekin egina beharrean, gariarekin egindako garagardoa omen da, hobeki esan, *gariardoa*, kolorez hori-horia, zaporez, berriz... dastatu egina behar.

Larunbatean 21:30etik aurrera, izanen da horretarako aukera, beraz.

LEITZA ▶ KIROLA

Aurrera punturik gabe itzuli da Sakanatik

2 eta 1eko emaitza kolkoan, arbitroaren erabakiekin ez daude oso ados etxeokak



Iker Bengoetxeak sartu zuen Aurreraren gola. J. ASTIBIA.

J. ASTIBIA

Larunbatean jokaturako partidua 2 eta 1eko emaitzarekin bukatu zuten Aurrerakoek, Sakanako Uhartre-Arakilen, Aralar Mendi taldearen aurka, ondorioz puntuak han utzita itzuli behar izan zutelarik.

Han bertan izan zirenek atzo adierazi zutenaren arabera, emaitza hori ez zen ordea, zelaiaren ikusi zenaren isla zuzena izan. Leitzarrek partidua hasieratik ongi jokatu zuten, jokaldi politik eginez eta aurkariaren atera maiz iritsiz. Horrela, gola sartu eta 0 eta 1eko markagailuarekin bukatu zuten lehendabiziko zatia. Iker Bengoetxea taldeko kapitainak sartu zuen gol hau, bereztzat denboraldian sartzen duen laugarrena. «Ikusgarria izan zen, zelaiaren erdi-erditik indarrez jaurtitako baloia izan zelako», argitu zuten.

Bigarren denborara, beraz, abantailatxoarekin joan ziren

Aurrerakoak. Baina etxeko taldea indarrak berreskuratuta atera zen, erasora, eta beraien lehendabiziko gola etorri zen. Guztiek ere lanean jarraitu zuten «puntu horri behintzat eutsi nahi zitzaion, merezi baikenuen», zioten. Baina partidua bukatzeraz zioala, «jokoz kanpoko jokaldi garbian» hemengo teknikoan uestez, bigarren gola jaso zuten Aurrerakoek uhartearrengandik, puntu guztiak han utzita itzuli behar izan zutelarik.

Bigarren zatia jokatzeko zirela, arbitroak buruan kolpe bat jaso omen zuen zelaiaren ondorioz kordea galduxeta geldituz. Arreta jaso eta zorabiatu samar, baina lanean jarraitzeko moduan zela eta, jokako aurrera egin omen zuen. Baina geroztik, «erabakiak, motel, zalantzaraz eta argitasunik gabe hartu zituen», adierazi zuten leitzarrek. «Haien bigarren golak, ez zuen gola izan behar: jokoz kanpo garbia zen, arbitroak ikusi eta eskua goratu ere egin zuen, zailantza eragin zuen, jokoa geldituxe ere egin zen, baina azkenean ez zuen txilbitua jo eta, besteak atera iritsi ziren eta gola sartu ziguten», agertu zuten kexu.

Bestalde aipatu zutenek, Leitzatik zaletu dezente joan omen zen Uhartre-Arakileraino, herriko taldea animatzera «(ia bertakoak baino gehiago ginen), zioten esker onez taldekoek: «Horrela gogotsuago jokatzen da». Alde horretatik behinik behin, gustura ageri ziren guztiak.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Villabona. Etxebizitza eraiki berria salgai. 90 m²-ko. Egonela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. 69 m² eta trasteleku duen etxe eraiki berria. Egonela, sukaldea eta bi logela. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. 90 m²-ko etxebizitza, egongela, sukaldea, 2 logela, 2 bainugela eta jantzigelarekin. Kanpoaldera begira. Eguzkitsua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 291 m²-ko villa salgai. 3 solairurekin. 1.037 m²-ko lursaila. 80.000.000 pta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 50m²-ko etxebizitza polita salgai. 2 logela, berrikuntza egin berria.

Estreintatzeko. 25.000.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 80 m²-ko etxebizitza salgai. Hiru logel. Erabat berritua, altzariz hornitua. Kanpoaldera. Eguzkitsua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 291 m²-ko villa, hiru solairurekin. 1.037 m²-ko terrenoa. 80.000.000 pezeta. Etxesagasti.

Zizurkil. 90 m²-ko etxebizitza. Egonela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Guztiz berritua. Kanpoaldera. Garajea aukeran. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 60 m²-ko etxea. Egonela, sukaldea, bi logela eta bainugela. Erabat berritua. Horma-armairuak. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 80 m²-ko etxebizitza salgai.

Egonela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Guztiz kanpoaldera eta berritua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 61 m²-ko eta 8 m²-ko trasteroa duen pisu altua. Egonela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Guztiz berritua. Kanpoaldera. Altzariekin. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. 80 m²-ko etxea. Hiru logela. Berritzeko. 28.800.000 pta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Erdialdean. Gela bat, bi eta hiru gelako etxe eraiki berriak. 36.000.000 pezetatik gora. Etxesagasti 943 69 68 56.

Tolosa. Pisu altua, igogailuarekin, zerbitzat berritua; hiru logela, terraza ederra. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 85 m²-ko etxea, egongela,

sukaldea, hiru logela eta bainugela. Berritzeko. 36.000.000 pezeta negoziagarriak. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Lursaila duen baserria berritzeko. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Asteasu. Etxe indibiduala. 135 m²-ko hiru solairu eta 15.000 m²-ko lursaila. Sarrezko prest. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Alkiza. Villa indibiduala lursailarekin. Kapriboz. 100 m² eta hiru solairu. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Errezil. Landaturismoa alokairuan. Informazio pertsonala. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Behar dira. Etskaera handigatik: landa eta hirigintza lursailak, etxebizitzak, villak, baserriak... salgai edo alokairuan. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 9a, asteartea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzokieta, Aduna, Altsatur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anocha, Ballarain, Belaurtza, Berastegi, Edoain, Hernialde, Itarra, Irua, Larrañe, Lezaburu, Lizarza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zizurki.

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza.
Kultura Salla

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

14

hotzera

13

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

AFARIAK-BAZKARIAK

Amezketeta. San Martin eguneko bazkaria Behartzana jatekxan egingo da. Izen-ematea: 943 650695 edo 205 727730.

Tolosa. Azaroaren 27an Ikastolako ikasle ohien afaria eta festa. Txartelak Ikatza, Orbel eta Iruña tabernetan salgai 20 eurotan, hilaren 22 arte. Gaur antolatzaileen bilera 19:00etan Kultur Etxean.

Tolosa. Azaroaren 13an urteroko afaria egingo dute Zezen-plaza ingurukoak. Izen-ematea ohiko tokietan.

Tolosa. Denboraldi amaierako afaria egingo dute Tolosa CFko zikloturistek hilaren 27an. Izen-ematea: 943 655092 edo 649 406085 (Dani).

Tolosa. Azaroaren 13an, Engomadora Moderna enpresako langile ohien bazkaria, Fronton jatekxan. Izen-ematea 943 674669, 943 117010 eta 943 651955 telefonoetan.

Tolosaldea. Azaroaren 20an, Mexikoko iraultzaren eguna, Euskal Herrian bizi diren mexikarren topaketa egingo da Donostiako Ezeiza hotel-jatekxan. Izen-ematea: 656 77 02 04 (Rosalia) eta 646 86 73 64 (Jose Antonio).

DEIALDIK

Berastegi. Odola emateko aukera izango da herriko eskolan 18:30etik aurrera.

Tolosa. Espainiari eta Frantziari intsumisioa jorratzeko batzar irekia deitu du Segik. Kultur Etxean 18:30ean.

Tolosa. Laskorain Ikastolako eta Kazkabarra taldeak Urbintxa eskolarekin batera antolatutako begirale ikastarorako plazak daude. Izen-ematea 677 499971 telefonoan.

HITZALDIK

Amezketeta. Txizari eusteko arazoei buruzko hitzaldia eskainiko du Jose Luis San Martinek gela balioanitzean 19:00etan.

Tolosa. Hirukide Jesuitinetako Guraso Eskolak *bullying*-gari buruzko hitzaldia antolatu du. Jorge Madariaga psikologoak informazioa ematen eta zalantzak argitzen saiatuko da bertan. Txaro Etxeberria ikastetxeko orientatzailea izango da moderatzaile.

18:30ean hasita ikastetxean.
Villabona. Osasun etxeko medikua hipertentsioari buruzko hitzaldia emango du Biltoki elkartearen bihar 17:00etan.

KIROLA

Berrobi. XIII. Frontenis Txapelketarako izena eman daiteke udalekxan, Urkola tabernan, Iriarte jatekxan eta Tolosako Aralar Kirolak dendan hilaren 12a baino lehen.

Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu behar du eta banakakoek 5 euro.

Tolosa. Shanti Kirolak dendak autobusa antolatu du datorren igandean Behobia-Donostia herri lasterketan parte hartu behar dutenen joan-etorriarako. Informazioa eta izen-ematea, dendan bertan.

Tolosaldea. Larunbatean egingo da Hernialdeko Rolleski Igoera. Izen-ematea: Alpino Uzturren (Gudari 5. Tolosa), 652 77 84 25 telefonoan (arratsaldeetan) edo alpinouzturre@begira.com posta elektronikoa.

Villabona. VII. Areto Futbol Torneorako izen-ematea irekia dago azaroaren 11 arte Olaederra kiroldegian. Partidak larunbata arratsaldetan eta igande goizetan jokatu dira. Txapelketa, azaroaren 20an hasiko da.

SAN MARTIN JAIK

Amasa. Gaur mondeju afaria Uxo Toki elkartearen. Bihar 06:00etan Ongi-etorri tabernan gazteen gosaria trikitilari eta dultzaineroekin; dantza soka eta aurrekua 16:30ean; ondoren trikitilarien erromeria eta 21:00etan afaria Arantzabi jatekxan. Etzi, meza, herri kirolak, bertsolariak, trikitilariak, pala txapelketako finala, eskuzko pilota partidak...

Amezketeta. Etzi 11:00etan meza nagusia; 14:30ean bazkaria Behartzana jatekxan; Mañukorta eta Mendizabal bertsolariak eta Xapre eta bere laguntzaileekin; arratsaldean, haurrentzako tren; ondoren, haurrentzako eta adinkoentzako txokolatetea.

ZINEMA

Tolosa. *El diario de Noa.* Leidor zineman 19:30 eta 22:30ean. Ikuslearen eguna.

Doinuak, mozorrotuta

LEGAZPIA ▶ Et Incarnatus orkestrak Tolosako Inauteri piezen moldaketak aurkeztu ditu; diskoa grabatuko du laster



Et Incarnatus orkestra Migel Zeberio zuzendariarekin Legazpiko Latxartegi aretoan. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Tolosako Inauterietako betiko doinu batzuk mozorrotuta, txantxoz jantzia, aurkeztu zituen herenegun Legazpiko Latxartegi aretoan Et Incarnatus orkestrak. Migel Zeberio tolosarra da orkestraren zuzendaria eta bere anaia Xabier biolin joleetako bat, harizko tresnak jotzen dituzten beste hamar musikari gazterekin batera

Betiko doinueen bertsio libre-ak egin dituzte Juantxo eta Xabier Zeberio anaiek eta Txema Garzes tolosarrak. Hala *Gal-tzaundi*, *Troika*, *Pello ziri-ziri*,

Paquita la vergaresa, 20. eta 22. *habanera*k eta Alboradako doinu bat entzun ahal izan genuen. Moldaketa berezi eta oso finak egin dituzte musikari hauek. Lan interesgarria, entzuteko atsegina eta ekarpen garrantzitsua Tolosako Inauterientzat.

Grabaketa aste honetan

Gainera datozen bi asteotan Elkar disketxean grabatuko dituzte doinu horiek Et Incarnatus orkestrako kideek zenbait abeslari, txistulari eta bestelako musikarekin batera eta datozen Inauterietarako kalean

egongo da diskoa. Disko grabaketan laguntzen eta filmetako musika egiten esperientzia handia du orkestra honek.

Igandeko kontzertua Doinu-gako ekitaldien barruan sartzen zen. Jende dezente bildu zen Latxartegi aretoan —tolosar batzuek tartea— eta gustura jarraitu zuten Et Incarnatus orkestraren saioa. Musika eskolako irakasle batzuk sorrera eta bilakaera gogoratu zuten entzuleen aurrean. Inauteri doinuez gain, hari orkestra honen beste espezialitatea ere dastatu ahal izan genuen: Europa Iparraldeko musika.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Miren Izagirre Elizaran.

Gaur 6 urte.

Etxeko partetik musu asko.



URTE ASKOAN

Eneko

(Villabona).

Senideen partetik zorionak.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberririk... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!